

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zein dira zure bezeroak?

Gaur egungo gazteria edo festa girora ateratzen den jendea. Baita dibertsioa bilatzen dutenak ere. Jende helduak ez du gazteak bezala kontsumituko, arroparenbat erosiko dute gustuko badute baina gehienbat gazteetan zentratuko gara eta baita gazteak bihurtu behar direnak eta nahi dutenak ere.

Bezeru segmentazioa:

Gure bezeroak adinaren arabera daude oinarrituta, lehenik umeak: 12urte arte, ondoren gazteak: 15-20, ondoren heldu gazteak: 20-30 eta azkenik helduak: 30+

Umeak oraindik gazteegiak dira gure produktuak behar diren moduan kontsumitzeko, baina beti egongo da batenbat zerbait gustuko duena, hauek zerbait kontsumituko dute baina ez dira gure bezero hoberenak izango. Ondoren gazteak, hauek gehien kontsumituko dutenak izango dira, benetako festa giroan nahiko hasi berriak direnak. Gero heldu gazteak, hauek esperientzia dute eta nahiz eta gazteak bezain beste ez kontsumitu, bigarren postuan kokatuko lirateke, azkenean gure produktu gehienak gazteentzako direlako eta hauek oraindik gazteen taldean kokatzen direlako. Azkenik helduak ditugu, hauek gutxi kontsumituko dute, baina gehigarrien partez jeantzietan zentratuko dira; kamisetak, jertseak...

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Gure bezeroak orain dagoena baino zerbait ezberdina bilatzen dute, festa bertan erosi eta moldatu beharrean lortu nahi dutena egiteko. Guk merkatuan ipiniko ditugu beraiek gustuko duten moduan. Gure produktuak ikusi eta zera esatea nahi dugu:

- Hau festa eta gazte giroa, zergatik ez? .

Horrelako hausnarketak sortzeak jende gehiago erakarriko duela pentsatzen dugu.

